



8. JARDUERAK

Gure enpresak izango duen jarduerari dagokionez, enpresak egin beharreko ekintza garrantzitsuenak deskribatzen dira negozio ereduak funtziona dezan. Gure jarduera printzipala kontsumitzaileen erosketa prozesua erraztea eta sinplifikatzea izango da.

Arazoren bat gertatuko balitz, kontsumitzaileak enpresarekin komunikatzeko baliabideak izango lituzke. Komunikazio hau gure app barruko tresna baten bitartez edota telefono edo email baten bidez izan liteke. Arazoa aztertu eta ondoren, kontsumitzaileak arrazoi duela gertatzen bada, beharrezko materialak emango dizkiogu, gure aplikazioko produktuen erabilerarekin gustura senti daiten.

Horretaz gain, oso garrantzitsua izango da gure sare sozilen, web orriaren eta marketing-aren jarduera.

Hasteko, nahiz eta gure produktuaren erabilera nagusirako webgune propioa izan, gure aplikazioa sare sozialen bidez ere sustatuko dugu, hala nola Instagram, Tik-Tok edo Youtube.

Bestetik, gure webgunea, aplikazioa eta sare sozialak hiruron artean gidatuko ditugu, ez dugu inor kontratatuko.

Azkenik, publizitatea eta marketing-ari dagokionez, mugikorreko zenbait aplikazioetan gure aplikazioa iragarkiko dugu. Youtubekin akordio batera helduz, gure aplikazioaren iragarkia jarriko dugu, gainera guk aukeratu dezakegu zein lurraldeetan agertuko den.

Arestian aipatu bezala, lehenengo erosketan %15ko deskontua eskainiko dugu produktu guztietan. Horretaz gain, 5 erosketak eginez gero %10ko deskontua eskainiko da egiten den hurrengo erosketan.

